



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



PROTOKOLOA, ALARMA-EGOERA AMAITU ONDOREN KORONABIRUS (COVID - 19)

Lan Osasuneko Batzordearen erabaki-proposamena

** Protokolo irekia da eta osasun bilakaeraren eta osasun publikoko agintaritzek xedatutako zuzentarauen arabera aldatuko da. 2021/05/21.*



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



1. SARRERA

Lehendakariak maiatzaren 7an emandako SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzko 23/2021 Dekretuaren 1. artikuluan ("prebentzio-neurri orokorrak") oinarrituta.

Kontuan izan behar da neurrietako batzuk pandemia hedatzeko arriskua amaitu arte aplikatzen jarraitu beharko direla, batez ere, honako hauek:

2. JARDUKETA PROTOKOLOA

Oinarrizko neurriak betetzen jarraitzea:

- Bi metroko distantzia fisikoa mantentzea.
- Pertsonen arteko hurbiltasun fisikoa dakarten egoeretan maskarak erabiltzea.
- Higiene pertsonaleko eta espazio komunitateko garbiketa neurriak mantentzea.

HIGIENE PERTSONALA

☒ Eztul edo doministiku egitean, ongi estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo erabili eta botatzeko musuzapi batekin, arnasketa sekrezioak gelditzeko helburuarekin.

☒ Erabili eta botatzeko musuzapiak erabili eta, ondoren, bota berehala helburu horretarako gaitutako edukiontzi batera.

☒ Garbitu eskuak maiz garbitu ur eta xaboiarekin (edo gomendatutako soluzio batekin), birusaren transmisioa edo birusarekin kontaktua ekiditeko, eta beti eztul, doministiku eta zintz egin ondoren. Eskuak ageriko moduan garbi badaude, eskuen higiena alkohol oinarridun produktuekin burutuko da.

☒ Ez ukitu begiak, sudurra eta ahora, eskuek birusaren transmisioa ahalbidetzen baitute.

☒ Saiatu kontaktu fisikoa ekiditen.

INSTALAZIOEN GARBIKETA ETA DESINFEKZIO PROZEDURA

☒ Garbiketa enpresak, eremu komunak desinfektatzen jarraituko du (ateetako heldulekuak, etengailuak, etab.) helburu horretarako desinfektatzaile espezifiko batekin.

☒ Ibilgailu guztien kabinetan alkohola eta paper-zapi bustiak egongo dira, kabina garbitzeko.

☒ Jardunaldia amaitzean, gidariak bolantea, abiadura-kaxa eta zipriztin-ontzia alkoholez garbituko ditu



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



☒ Ibilgailuen kabinak ozonoarekin desinfektatuko dira egunean behin. Ibilgailu guztiek, erabili aurretik, ozonizazio eta ionizazio prozesua igaroko dute.

☒ **HELBURU HORRETARAKO EZARRITAKO PROTOKOLOA HONAKOA DA:**

IBILGAILU KABINEN OZONIZAZIOA.

Erabiliko den makina:.- Ozono makina



Gailua erabilerraza da, elektrizitate sarera konektatu behar da eta tenporizadorea jarri. Honela, 10 minuturen buruan, kabinak ozonizatuta geratuko dira.

☒ Lan hau burutzeko ardura duten langileak

- .- Lantegiko burua
- .- Biltegiko laguntzailea
- .- Lantegiko langilea (jardunaldiaren arabera definitu beharrekoa)

Langileek makinaren erabilerari buruzko jarraibideak jaso dituzte.

☒ Jarduketa protokoloa

- ✓ Goizeko lehen orduan, lantegiko buruak ezarriko ditu ibilgailuen ozonizazioaren inguruko lehenetsunak. Egunerako aurreikusitako lanen arabera goizean zehar erabiliko diren ibilgailuak ozonizatuko dira lehenik, hartara lan horiek burutzeko ardura duten langileak martxan jarrita.
- ✓ Kabinak ozonizatzeke batez besteko denbora 10 minutukoa da ibilgailu bakoitzeko (ez da zenbatzen ibilgailuak makina dagoen tokira eramateko beharrezko denbora). Prozesu horretan zehar, ibilgailuaren atea itxita mantendu behar dira eta inor ez da kabinara sartuko. Prozesua amaituta, leihoak irekita utziko



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



dira aireztatzeko.

- ✓ Ibilgailu horiek ozonizatu ondoren, gauean zehar erabiliko diren ibilgailu guztiekin prozesu bera burutuko da.
- ✓ Ozonizatu diren ibilgailuen kontrolerako txosten bat burutuko da egunero eta Mankomunitateko Prebentzio Teknikariari helaraziko zaio, (jarduneko) lantegiko buruaren sinadurarekin eta ozonizazio lana burutu duen pertsonaren sinadurarekin.
- ✓ **SEGURTASUN ARAUAK:** erabat debekatuta dago ozono igorgailuaren funtzionamendua, pertsona eta/edo izaki bizidunen aurrean. Ozono makina ez da inolaz ere ipiniko likido edo gel hidroalkoholkoa edo bestelako gas edo likido sukoiak dituzten edukiontzietatik hurbil.

ANTOLAKETA NEURRIAK:

Zuzendaritzatik egokitzat jo da koronabirusari aurre egiteko hartutako antolaketa neurriak mantentzea.

1- BULEGOETAKO LANGILEAK

Jendaurreko arretarako protokolo honi eutsiko zaio:

Atean adieraziko da gehieneko edukiera pertsona bakarrekoa dela, hau da, herritarrek kanpoan itxaron beharko dute arreta jasotzeko atea ireki arte.

Sartzeko, maskara ipini beharko da eta sarreran eskuak garbitzeko gel hidroalkoholkoa egongo da.

Mankomunitateko langileek metakrilatozko pantailak izango dituzte, prebentzio neurri gisa, eta zinta bat jarriko da, arreta mostradorearekiko distantzia gordetzeko.

Kanpoko pertsonak erabiltzen dituzten boligrafoak, baita gel hidroalkoholikoaren edukiontzia bera ere, alkoholarekin desinfektatuko ditu harrerako langileak.

Bulegoetako langileei dagokienez, langileen arteko kontaktua ahalik eta gehien saihestuko da. Gutxienezko distantzia 1,5 metrokoa izango da.

Ahal den neurrian, departamentu arteko kontsultak telefonoz egingo dira.

Bilerak saihestu egingo dira, ez badira behar-beharrezkoak; hala bada, langileek maskarak eraman beharko dituzte. Langile guztiek alkohola izango dute eskura, beren mahaiak, teklatuak, telefonoak eta gainerako lan tresnak desinfektatzeko.

Halaber, gel hidroalkoholkoa izango dute eskura, eskuak garbitzeko.

Lanpostura itzultzean, eremua (bulegoa edo antzekoa) gutxienez 10 minutuz aireztatu beharko da. Lanpostura itzuli aurretik, eskuak garbitu (eraztun, eskumuturreko, erloju eta abarrak kenduta), agintari eskudunek emandako gomendioen arabera. Teklatua, sagua, telefonoaren aurikularra eta abar botatzeko materialarekin desinfektatu (ez erabili baietak).

Lan jardunaldian zehar eta jardunaldia amaitu ondoren, eskuak ur eta xaboiarekin garbitu.



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



2- KALE GARBIKETAKO LANGILEAK

Langileen arteko kontaktua ahalik eta gehien saihestuko da. Gutxienerako distantzia 1,5 metrokoa izango da.

Langile guztiek gel hidroalkoholikoa izango dute eskura.

Lanera sartzea txandaka egingo da, aldageletan aldi berean 3-4 pertsona baino gehiago ez egoteko. Segurtasun distantzia gorde beharko da, beraz, aldagela txikia bada, aipatu edukiera ere txikiagoa izango da.

Gidari guztiek alkohola izango dute eskura, bolantea, abiadura kaxa eta aurreko panela garbitzeko.

Maskarak orain arte bezala erabili beharko dira..

3- HIRI HONDAKINEN BILKETA ZERBITZUKO LANGILEAK

Langileen arteko kontaktua ahalik eta gehien saihestuko da. Gutxienerako distantzia 1,5 metrokoa izango da.

Lanera sartzea txandaka egingo da, aldageletan aldi berean 3 pertsona baino gehiago ez egoteko. Segurtasun distantzia gorde beharko da. Pertsonen artean 1,5 metroko distantzia gordetzen dela bermatu behar da eremu komunetan eta, edonola ere, gune horietan jende metaketak saihestu beharko dira. Edukiera kontrolatuko da, 1,5 metroko segurtasun distantzia mantentzeko.

Gidari guztiek alkohola izango dute eskura, bolantea, abiadura kaxa eta aurreko panela garbitzeko.

Langile guztiek maskarak, betaurrekoak eta erabili eta botatzeko eskularruak izango dituzte eskura.

Lanean hasteko txandak mantenduko dira.

Kabina aireztatuko da.

Maskarak orain arte bezala erabili beharko dira.

4- LANTEGIA:

Langileen arteko kontaktua ahalik eta gehien saihestuko da. Gutxienerako distantzia 1,5 metrokoa izango da; lan arrazoiak direla eta segurtasun distantzia gorde ezin bada, langileek maskara eraman beharko dute.

Langileak txandaka hasiko dira lanean, aldageletan 3-4 pertsona baino gehiago batera egotea saihesteko (koordinatu eguneko hiri hondakinen bilketa zerbitzuarekin). Segurtasun distantzia gorde behar da.

Mekanikari/peoi mekanikari guztiek alkohola izango dute eskura, langile batek baino gehiagok erabiliko dituzten tresnak garbitzeko. Tresnak desinfektatu beharko dituzte, beste pertsona batek erabili aurretik.

Lantegiko langileek ura eta xaboia dituzte eskura.

Lantegiko langile guztiei erabili eta botatzeko eskularruak, maskara eta betaurrekoak eman zaizkie.

Maskarak orain arte bezala erabili beharko dira.

5- GARBIGUNE ZERBITZUKO LANGILEAK

Garbiguneetara sartzen diren langileentzat ezarritako jarduketa protokoloari eutsiko zaio:


GARBIGUNEKO ERABILITZAILEAREN ERANTZUKIZUNA ETA BETEBEHARRAK

- DERRIGORREZKO DA ADIERAZITAKO SEGURTASUN DISTANTZIA MANTENTZEA



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



- DERRIGORREZKOA DA EZARRITAKO TXANDAK ETA GARBIGUNEKO LANGILEEK EMANDAKO JARRAIBIDEAK ERRESPECTATZEA
- GEHIENEZ ERE 4 ERABILTZAILE.

Garbiguneko arduradunak kontrolatuko du momentu oro edukiera, segurtasun distantziak mantentzen direla bermatzeko eta jendea pilotzea ekiditeko.

ARAU HAUEK ZURE SEGURTASUNAREN ONERAKO DIRA. LAGUNDU IEZAGUZU. ESKERRIK ASKO.

Garbiguneetako langileek eskura izango dituzte erabili eta botatzeko eskularruak, maskarak eta betaurrekoak. Herritarrek ez dute sarrerako erregistrorik sinatuko.

Langileek alkohola eta papera izango dituzte eskura beren mahaiak, teklatuak, telefonoak eta gainerako lan tresnak desinfektatzeko.

Halaber, gel hidroalkoholikoa ere eskura izango dute eskuak garbitzeko.

Maskarak orain arte bezala erabili beharko dira.

6- HERRITARREKIKO NEURRIAK

Edukiontzi grisa eta marroia irekita mantenduko dira.

Tamaina handiko hondakinen bilketa mantenduko da.

Eibarren, 2021ko maiatzaren 21an.

PRESIDENTEA
Iosu Arraiz Aranburu



DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea
Mancomunidad Comarcal



ERREGISTROA

Langileak, jaunak/andreak, NAN
zenbakiduna, honakoa adierazten du:

- Koronabirusaren aurkako protokoloa jaso eta irakurri izana, alarma-egoera amaitu ondoren

Halaber, erantzukizunaren zati bat onartzen dut eta protokoloaren ezarpenarekin konpromisoa hartzen dut, koronabirusaren aurkako borroka guztion erantzukizuna baita.

Sinadura:

Data: